

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko irailaren 14a

Egunkaria


Gehigarri honetan



**Agoitz** • Beaumondarren eta agramondarren arteko bakea antzetzuko dute bihar  
**Jose Antonio Cruz** • «Jendea film laburren jaialdira erakarri eta zaletasuna piztu nahi dugu»

## Jaietako kartelen

• MIKEL SAIZ






Iñaki Fernandez Iturmendik zaletasun bitxia du. Herrietako jaiak iragartzeko kartelak egitea du gustuko. Kartelak egin eta, noski, lehiaketetara bidaltzen ditu. 1990 urtean hasi zenetik ehun sari eskuratu ditu Iñakik. Hasieran pintzelaz, gero collage moduan, ondoren aerografoz eta azkenik ordenagailuz. Teknika ezberdinak erabili izan ditu, baina gaia, beti gai bera jorratu du: jaia. Eta ehun aldiz saritu dute jaiaren apologia egiteagatik.



• MIKEL SAIZ

# txapeladuna



# Agoitz • Agramondarren eta beaumontdarren bakea

XV. mendeko gertakariak gogora ekarriko dituzte herritarrek bihar, jai egun bat eginez

**A**GRAMONDARREK ETA BEAUMONDARREK euren ezpatak lurtean sartuko dituzte berriz ere Agoizko herritarren aurrean bihar, bake ikur moduan, XV. mendean egin zuten bezala. Orduan, Pedro Nafarroakoa markesak eta Luis Beaumongo Leringo konteak sinatu zuten bakea, Magdalena printzesak deituta. Bihar, ehun bat herritar

jarri ziren: Mikel Sorauren historialariari gertaeren kontakizuna idazteko eskatu zioten 1999. urtean, eta iaz, berriz, antzezlan laburra prestatu zuten San Roman basilizan gertatutakoari buruz.

Bihar Agoitzen ikusi ahal izanen den obra, ordea, Josu Soraurenek prestatu du, Mikel Soraurenen anaiak. «Mikelek bere anaiarengana jotzeko esan zi-

## Ekitaldiak egun osoan

«Obra prestatzeko Aita Moreten kronikak hartu ditut ardatz, eta kronika horien mezua da Nafarroak kanpoko esku-hartzeen erruz galdu duela bere nortasuna, eta nafarrei dagokielako nortasun hori babestea», azpimarratu zuen Soraurenek. Gertakariaren mamari eutsi diola gaineratu zuen, baina beste

badu.

Biharko bestak, dena den, osagai gehiago izanen ditu. Goizetik, Erdi Aroko azoka izanen da eta pregoilaria ibiliko da Alde Zaharrean, jaiaren berri emanez. 12:30ean, erraldoien konpartsa, gaitariak eta txistulariak ibiliko dira kaleetan, eta 13:00etan, berriz, San Miguel abesbatza txikiak eta dantzariak

**Agoizko herritar guztiek bat egin dute herrian 1479. urtean beaumontdarrek eta agramondarrek hango San Roman basilizan sinatu zuten bakearen berri emateko. Jai eguna ospatuko dute bihar hori gogora ekartzeko, eta XV. mendeko gertaeren antzezpena egingen dute.**



Agramondarren eta beaumontdarren arteko bakea gogora ekarriko dute herritarrek. ● EGUNKARIA

rrek parte hartuko dute 1479. urteko gertakari hura gogora ekartzeko antolatuta duten antzezlanen.

Egitasmo horretan Agoizko kultur talde guztiek eta Udalak bat egin dute. Ez da berria, 1995. urtean jarri baitzen abian. Urte hartan San Roman basiliza berri zuten. Agramondarren eta beaumontdarren arteko bakearen lekuko izan zen eraikin hori. Horrek herriko historia gogora ekartzeko gogoia piztu zuen kultur taldeen artean eta martxan

gun eta hala egin genuen», azaldu zuen Angiluerreka taldeko kide Pablo Latasak biharko bestaren aurkezpenean. Soraurenek gustura hartu zuen enkargua eta, Aita Moreten kronikak abiapuntutzat hartuz, gidioa idatzi zuen. Bera da, halaber, antzezlaneko zuzendaria.

hainbat pertsonaia baliatu dituela antzezlanaren atseginago eta osoago bilakatzeko. Ikuskitzuna bi ordu inguru iraunen du eta ehun bat herritarrek parte hartuko dute. Arratsaldeko 20:00etan egingen dute, Nafarroa Beherea plazan, edo frontoian, eguraldi txarra egiten

euren emanaldiak eskainiko dituzte. Arratsaldeko 18:00etan, herriko hainbat gunetatik plaza-kalejira hasiko dute berriro herriko konpartsek. Kalejira amaituta, herritarren antzezlan hasiko da plazan.

→ Edurne Elizondo

→ Asier Azpilikueta

## Iruñea

### Alde Zaharreko erraldoi berriak

Bihar, larunbatarekin, Alde Zaharreko erraldoien konpartsa bi erraldoi berri aurkeztuko ditu. Aurkezpena San Frantzisko plazan izanen da, eguerdiko hamabietan. Proiektua iazko San Fermin Txikin aurkeztu zuten eta urtebetez auzoko gazte talde bat lanean ibili da, hurrengo asteburuko bestetan erraldoiak dantzatzen ikusteko.

Bihar bi erraldoi besterik ez dituzte aurkeztuko, baina beste bi gehiago egin nahi dituzte. Izan ere, lau erraldoi horiek izadiko lau elementu klasikoak ordezkatzeko asmoa: Ura, Aire, Sua eta Lurra. Bihar aurkeztuko dituzten erraldoiak Aire eta Lurra dira.

Erraldoi horiekin Alde Zaharreko konpartsa beteko da. Konpartsa lau kiliki ditu (1975tik), hiru burgoak ordezkatzeko dituzten sei erraldoi tiki (1997tik), eta lau zaldiko (1998tik).

Erraldoien aurkezpena dela eta, Alde Zaharreko Erraldoien Konpartsa kultur astea antolatu du. Bihar, 12:00etan, erraldoiak aurkeztuko dituzte, eta, ordu bete geroago, karrika dantzan abiatuko dira auzoan barrena. Astelehenean, 20:00etan, *Erraldoien* mundua izeneko erakusketa zabalduko dute Nabarrera zentroan. Erakusketa hilaren 21a arte izanen da ikusgai. Asteazkenan, leku eta ordu berean, Nafarroako erraldoi eta buruhandien historia izanen du mintzagai Jesus Ramosek. Eta, azkenik, hurrengo larunbatean, konpartsa osoa katedraletik abiatuko da 12:00etan.

## irulegitik

JOJO BIDART



**B**ero handiak, herriko bestak, lagunaren arteko otorduak eta berant artinoko solasaldiak, batzuentzat oporrak, lan gehiago besteentzat, udako sasoiaren bururatu da.

Ohiko erritmoan berriz sartuz, baxotxa itzultzen da bere usaiak egin moldeetatik.

Sartzea dugu!

Baxe Nafarroan ere neurtzen dugu aldaketa: Donibane Garaziko auto lerro luzeak desagertu dira eta asteleheneko merkatuak usaiak itxura hartu du berriz ere.

Eskolen ateak zabaldu dira. Lehen orreko haur ttipien harridura eta beldurrak ahantzirik, zalaparta, oihu eta irriek inarosten dituzte bi hilabete hauetan lokarturik egonak ziren bazterrak.

Eta zer berri Baxe Nafarroan euskal erakaskuntzaren aldetik? Ikastola berrian sartu direla amikuztar ikasleak. Donibane Garazin, berriz, euskarazko sail berri bat ideki du Nafarroako lizeoak.

## Sartzea

Berri onen ondoan txarragoak ere badira: Heletako haurrek ez baitute gela elebidunik aurkitu Herriko Etxean.

Baina, gure eskualdean ere, berri nagusia da erakaskuntza elebidunari buruz Hezkuntza Ministerioak atera duen dekretua. Imersio edo murgiltze sistema ezagutua da ofizialki. Gauza ona da dudarik gabe. Baina ez da dudarik testu horren erranahia egiaztatu edo ezeztatua izaten ahalko dela bere aplikazioan Hezkuntza Nazionaleko egitura astun eta konplexu guzietan. Jakinez aitzinetik zer jokamolde kritikoa duten erakaskuntza sindikatu nagusiek bai eta zer pisu duten oraino errepublikar Jacobinoek, ez da dudarik euskaldun burrasoen elkarrean kemena baitezpadakoa izanen dela oraino testuaren alde baikorra aitzina eramateko eta itotzerat ez uzteko.

Bestalde, Seaskaren barneko gogoetak hazteko gaia

emana da. Joan den maiatzean, Herri Urrats kari bildu diren Frantziako Estatuko hizkuntza guttituetako murgiltze sistema erabiltzen duten eskolen ordezkariak zioten Frantziako Hezkuntza Nazionalean sartzeko Seaska, Bressola eta Calandreta bezalako egituren geroa segurtatzeko garrantiak eskas zirela oraino. Orain agertzen diren testu ofizialek arrangura hori ezeztatzen dutela ez naiz segur, bereziki eskola berrien idekitze eta orokorki hizkuntza guttituen politika finkatzeko momentuan abisuen emateko sortuko diren akademiako hizkuntzen kontseiluaren kokapena eta hertsipena ikusita.

Baina ez dezagun dena bazter.

Alde baikorak balia ditzagun eta testuaren erabilpen konkretuak erakutsiko dauku batzuen eta besteen egiazko nahikeriak.


Gure aldetik, hasi lanaren segitzea eta gure proiektuen barnatzea eta sustatzea izanen da aurtengo sartzearen betiko berritasuna.

## Barañain •

## Ipuinak marrazkietan

Barañaingo haurrek ipuin tradizionalen gainean eginiko marrazkien erakusketa zabaldu dute

Barañaingo Udalbatza Ttikiko haurrek ipuin tradizionalen inguruko zirriborro artistikoak egin zituzten, bidean gelditu den proiektu baterako, eta orain marrazki horiek baliatu dituzte kultur etxean erakusketa paratzeko.



Barañaingo haurrek (irudian, erakusketaren zabalte ekitaldian) ipuin tradizionalen gaineko marrazkiak egin dituzte.

• PATRICIA ASTRAIN



**T**XANOGORRITXO. EDURNEZURI. Erpurutxoa. Ahatetxo itsusia. Txitxarra eta inurria. Katu botaduna. Erbia eta dordoka. Sirenatxoa. Zisne printzesa. Aladino. Ohianaren liburua. Sorgin gaiztoa. Hiru txerri txerriak. Errege lehoia. Peter Pan. Frai Perico eta bere mandotxoa. Ana, satitsuena. Hansel eta Gretel.

Walt Disney ekoiztetxe amerikarraren film katalogoa dirudien arren, Barañaingo Udalbatza Txikiko kideek aukeraturiko hemezortzi ipuin tradizionalak dira. Nora, Iñigo, Jennifer, Esther, Hiba, Maia, Eider, Jony, Juan, Paula,

Mirian eta Izakunek osatu zuten ipuin bilduma, bozketa demokratikoan.

Aurtengo udaberrian hiriko horien marrazkiekin apaintzea zen 'Artez' izeneko proiektuaren asmoa. Horretarako, Kultur Alorrak Italiako Amia Verona elkartearen laguntza izan zuen. Veronan antzeko ideia mamitzen ari den Dario Tinazzik Barañaingo Udalari aholkuak eman zizkion. Baina asmoa bertan behera gelditu zen eta ez zuten edukiontzirik pintatu. Haurren lana ezerezean ez gelditzeko, eginiko zirriborroen erakusketa paratzea

erabaki zuen Udalak. Iragan asteartean zabaldu zuten, kultur etxean. Hilaren 27a arte izanen da ikusgai, asteleheneetik ostiralera, 18:30etik 20:30era.

#### Udazkeneko eskaintza

Ipuin tradizionalen marrazkien erakusketa Barañaingo Udalaren udazkeneko kultur eskaintzaren barruan dago. Urrian beste bat izanen da, olinpismoaren ingurukoa, eta bertan Antonio Lopez, Txillida eta Tapias artisten lanak izanen dira, besteak beste.

Eskaintza kultur tailerrek osatzen dute: Zeramikari, marrazketari, pinturari, zaharberitzeari eta dantza latinoei buruzkoak, hainbat mailatan; denetara, 20 tailer. Izena emateko epea atzo hasi zen eta heldu den ostegunean bukatuko da, kultur etxean egin behar da, 10:00etatik 13:00etara.

→ Asier Azpilikueta

### herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Emakumezkoak 'gizonezkoen' lanbideetan

Udako oporrak amaituta, kalean dira berriz gure herrialdeko herri aldizkari eta hilabetekariak. **Ttipi-ttapa**, adibidez, berriz beteta dator oporretatik bueltan. Gizasmeek egiten ohi dituzten lanbideetan aritzen diren emakumeen inguruan egin du erreportaia nagusia hamabostekariak. Raketel Goñi kazetari baztandarrak sinatzen du. Lanbide horien artean aipatzen ditu mekaniko, soldatzaile eta taxi gidari lanak, besteak beste, eta horietan aritzen diren hiru emakumerekin mintzatu da.

«Emakumeak dira baina aukeratu duten

lanbidea *gizonezkoena* bakarrik balitz bezala ikusi izan da duela gutti arte. Emakumeak etxean lan egitekin kanpoan lan egitera pasa zirenetik urte nahiko igaro da, baina hala ere *gizonezkoen* lanbideetan daudenak gutti dira».

Haietako bat da Izaskun Portu lesakarra. Ile apaindegi batean hasi zen lanean eta orain soldatzaile da. «Printzipioz ez da oso arrunta zuzenean soldatzaile lanerako emakumeak eskatzea, baina gure lantegia nahiko berria da eta jendea gaztea da, bai zuzendaritzan eta baita operarioak ere.

Jenderik gabe gelditu ziren behin eta emakume bat hartu zuten. Bere lan egiteko modua gustatu zitzaion, eta hori dela eta, gehiago kontratatu dituzte, horien artean ni. Lanean finagoak gabela diote baina nik nire zalantzak ditut. Pertsonaren arabera-koa da», dio Portuk.

Josene Aldabe, berriz, taxi gidaria da Donezteben: «Gizonezkoekin alderatuta ez dut uste alde handirik dagoenik, izatekotan ere bezeroen tratuan, badakizu... gure sentimendua eta... Emakumeok lan egiteko eta egoteko dugun modua diferentea da».

### Argialdiak

Ez dakit ohartu zareten baina Iruñeko kaleetan geldi-geldirik gertzen den gizaseme bat dabil. Hori da guztia. Ez dago besterik. Oinez azkar doa, presatua ematen du, eta prausi, bat-batean, gainontzekoek sortzen duten joan-etorriaren erdian: stop!, zutunik gelditzen da, pixka bat aurrera makurturik, lurrari begira, aurretik inongo intermitenterik jarri gabe, inguruan zergatia argituko duen inongo zeinurik gabe. Eta gero, jendearen harridurarako, luzez egoten da geldi-geldirik, jendearen joan-etorriaren erdian, hamar minutuz edo gehiago (hamabost minutuz beharbada, edo gehiago), jendearen joan-etorriaren erdian zutunik. Reginak esaten du agian bat-bateko argialdi baten pean jausten dela gizona. Etxetik tabako bila jaitsi dela, esaterako, edo Taconeratik buelta bat emateko asmoarekin (besterik gabe) baina bat-batean berebiziko zer edo zertaz oharturik gelditu beharra duela, hausnartzeko, Egiazen indarrak geldiarazirik. Agian Zen irakaslea dela esaten du edo beste la fisikaria, eta grabitatearen misterioa zertan den agertzen zaiola (bat-batean) edo Dharma-ren funtsezko osagaien ulermena (akaso). Eta kezkatu egiten da Regina, zeren baliteke egun batean argialdiaren lekua Baionako etorbidea izatea (horrek dakarren arriskuarekin) eta ez Mercaderes kalea, esaterako, edo San Jose plazaren iturri ondoko lasaitasuna. Baina horrelakotan Jainkoak egiten dituela gauzak esaten diot nik, eta ez kezkatzeko gizonaz eta bere argialdien lekuez, Jainkoak gauzak egiten baititu. Eta kontua da lehengo egunean gizona geldi-geldirik topatu nuela Estafeta kalearen erdian, pixka bat makurturik, lurrari begira, grabitatearen misterioaren erdi-erdian, pentsatzen. Eta kontua da jada ez didala ia-ia atentzioa ematen, guztiz ohituta nagoela, Regina eta biok hausnartutako kontua dela jada, txostena artxibatua dugula alegia. Eta kontua da, hala eta guztiz ere, harriturik utzi ninduela, ikusi bainuen gizona nola martxan jartzen zen berriro ere, nola nahasten zen gainontzeko jendearen joan-etorriaren, zuk eta nik osatzen dugun tropel berean geldirik, eta orduan ni izan nintzen zutunik, argialdi baten pean pixka bat makurturik gelditu zena eta ohartu nintzen, ez grabitatearen misterioaz, ez Dharmaren funtsezko osagaietaz, gu guztiok anormalen tropela osatzen dugula baizik. Eta gauzak egiten dituen Jainkoari erregutu nion hurrengo argialdia ez dadila Baiona etorbidean izan, San Jose plazaren iturri ondoan nahiago dudala (horrek dakarren lasaitasunarekin). ●

Tafalla 1991

«Hiria eta zezena, margoan. Beltza eta gorria hondo zurian; besteren oinarriko koloreak. Garai hartan asko erabili nituen kolore horiek. Pintzelada gorriek lasterkariak irudikatzen dituzte eta margoari mugimendua ematen diote».



Valtiera 1995

«Behiak herrian. Collage teknikarekin egina da. Karteleko figurak aldizkari zatiekin eginak dira. Lan izugarri handia da. Aldizkarietan koloreak bilatzeko errotzen nintzen, batean aurkituriko berdea ez baitzen bestean topaturikoa. Baina oso ongi gelditzen da».

Altsasu 1996

«Erraldoien konpartsa. Karteletan herri bakoitzeko osagai adierazgarria sartzen saiatzen naiz. Hau ere collage bidez egina da, baina orduan hasi nintzen figuren ertzak errotuladore beltzez markatzen. Oraindik ez nekien ordenagailua pizten ere».



EA BA... 86, 90, 95, 98, 99 ETA 100. EHUN sari irabazi ditut orain arte. Eta, beno, oraindik Atarrabiako jaiak, Uhartekoak eta San Fermin Txikito iragartzeko kartel lehiaketak nork irabazi dituen jakitea falta da». Iñaki ongi zenbaturik ditut karpeta handi batean diru sariak jaso dituzten kartelak.

Lanbidez eskorga bat gidatzen du Iñakik. Lanetik atera eta etxera ailegatzten delarik, bere hobby-ari ekiten dio, margotzeari alegia. 1990. urtean bere zaletasuna kartel lehiaketetara bideratu zuen. Urte hartan irabazi zuen bere lehen saria.

Pintzeletik ordenagailura

Oinarriko moduan hasi zen pintatzen, pintzelarekin. Gero, margoa eta collage-a tartekatatu zituen. Ondoren, aerografoaren onurak deskubritu zituen. Gero, alargun gelditzeaz batera, ordenagailua erosi eta pare bat ikastaro egin zituenetik, arratoia da bere pintzela.

«Auskalo zenbat kartel egin ditudan, ehunka», aipatu du. «Txurroen gisara egiten ditut. Baina sariekin zortea izan dut. Zenbait kartelekin oso gustura gelditzen zara, baina gero ez duzu deus ere lortzen. Beste batzuetan, ordea, lardaskeria egin eta irabazten duzu. Adibidez, iazko Castejongoa irabazi nuen niri batere gustatzen ez zitzaidan kartel batekin. Epaimahaikoei gustatu behar zaie. Haizeak nondik jotzen dien asmatu behar da». «Sanferminetarako urtero aurkezten dut lanen bat, kristoren interesa dut, baina ez dago modurik», dio amorruz.

Pentsatzen ahal da hamaika urtetan sariekin diru pila irabazi duela. Baina sari gehienek diru kopurua sinbolikoa da. Barañoingo eta Tuterako sariak dira jaso dituen handienak: 200.000 pezeta (8.000 libera). Saria handia edo ttikia izan, Iñaki beti saiatzen da sari banaketara joaten; «herriak ezagutzeko aukera ona da, hurrengo urteetako kartelak egiteko ideiak jasotzeko parada».

Ikuspuntu berrien bila

Urteetan lehiatzen ibili denez, Iñakik badaki noiz izaten diren lanak aurkezteko epeak.

Uhart 1998

«Omenaldi ttikia Ardanbera txarangari. Beti hor dabilta, jaja girotzen; baina jendeak geroz eta gutiago segitzen ditu txarangak. Aerografoz egina da. Bukatua askoz hobe da. Collage-arekin segitzea ez zuen merezi, denbora asko kentzen baitu».



Gutxitu Fisikoen Koordinatzailea 1990

«Sartu zidaten kartela. Bigarren zuen. Barrera arazoza irudikatu. Edadetuak eta dabilzan emakumeak autobusari, eskolako espaloiari eta gero aurre egin behar



# Ehun adiz jai

Iñaki Fernandez Iturmendik ehun sari lortu 1990tik jaietako kartel lehiaketetan

Irun, Toledo, Talavera de la Reina eta Lizarrako inauterian, Barañain, San Adrian, Lodosa, Zangoza, Tafalla, Erriberri eta Corellako jaiak. Horiek guztiak iragartzeko Iñaki Fernandez Iturmendi irudigileak egin ditu aurten. Duela hamaika urte lehiaketetara lanak bidaltzen, eta orduetik ehun sari erdietsi ditu; ehun, bai.

Lehiaketako oinarriak eskuratu eta gero sortze prozesua hasten da. Iñakiren aburuz, esparru honetan ideia berriak izatea hagitzen da, arrunt landua dagoelako. «Xehetasun ttikiak bilatzen ditut, ikuspuntu berriak, perspektiba berriak. Ez dakit beti gauza bertsuak egiten ez ote ditudan. Baina azkenean beti sortzen da zer edo zer».

Egia da zenbait kartelek edozein herriko jaiak iragartzeko balio dutela, baina Iñaki saiatzen da karteletan herria identifikatzeko elementuren bat sartzen. «Ikusleak lekua gaiarekin be-



Toledo 1999

«Inauteria iragartzeko kartela. Egina. Maskara baten barruan Toledoko silueta ikusten da. Erriberriko kampo lehiaketak irabazi izan ditut, hala nola Toledokoa eta Talavera de la Reinakoa. Holakoetan entziklopediara informazio bila».

Iñaki Fernandez Iturmendi

«Auskalo zenbat kartel egin ditudan, ehunka. Txurroen gisara egiten ditut. Baina sariekin zortea izan dut. Zenbait kartelekin oso gustura gelditzen zara, baina gero ez duzu deus ere lortzen. Beste batzuetan, ordea, lardaskeria egin eta irabazten duzu»



luaren kontra joatea», dio. «Abantaila handiak ditu, batez ere denbora aldetik. Orain kartelak seriean egiten ditut ia. Lehen, margotzen nuen lehenbizikoa bidaltzen nuen lehiaketara. Orain makina bat proba egin, eta maiz ez dakit zein aukeratu».

Mezua argi eta garbi erakutsi

Iñakik ordenagailua erabiltzen du, baina ezin erraten ahal da informatikan aditua denik. Photoshop programa menperatzen du (irudiak moldatzeko programa), eta ez du gehiagorik behar.

Kartelak ordenagailuz egiten ditu, baina Iñakik, noiz edo noiz, margolanak egiten ditu. «Kontrakoa denbora galtzea litzateke, hain kontrajoa», dio. «Hasieran ez nuen nahi, eta seme-alabek erraten zidaten ez zela gauza bera, meritu eskasekoa zela ordenagailuarekin lan egitea. Baina oso erabilgarria da. Lanean eskorga erabili ordez zama eskuz eramatea bezala litzateke ordenagailua ez erabiltzea».

Iñakik ez du kartelak egitea, artea ote den. Erakusketak egiteko adina lan baditu, baina ez du halakorik egin nahi. «Jaietako kartelena etengabeko sortze lana da», adierazi du. «Ez baduzu zerbait berria egiten, ez du deusetarako balio. Publizitatearen antzekoa da. Ikuslearen arreta harrapatu behar duzu, leku zehatz batera eramateko». Iñakik, orain arte, ehun aldiz lortu du hori.

→ Asier Azpilikueta



Zangoza 2001

«Su artifizialak, erraldoiak eta zezen-plaza, Zangozako bestetan biltzeko hiru gune; horregatik du 'Bilgune' izenburua. Erraldoien argazkia ordenagailuz moldatu nuen».

Sanferminetako barrakak 2000

«San Ferminen irudia, eranskailuekin egina. Ordenagailuz eginiko collage-a, degradatu erraz baten gainean. Ordenagailuarekin hasi nintzenekoa. Eranskailu edo pegatinak barraka politikoetako osagai garrantzitsuak dira».



Irun 2000

«Kantina eta jenerala Irungo sanmartzialetan. Ordenagailura pasatu eta gero ez nuen aerografoa deustarako ukitzen. Toledoko 2000ko lehiaketan debekatu zuten ordenagailua erabiltzea. Baina aurten debekua kendu dute».



Tutera 2000

«Niri gehien gustatzen zaidan kartelako bat. Lau trazurekin gauza asko kontatu ditut. Eskuineko trazuak erraldoia, zezenaren adarra eta mutilaren besoa irudikatzen balio du».



# Balentin, herria zurekin

**Ni ez naiz hemengoa.** «Ni ez naiz hemengoa», pentsatu nuen, inongo originaltasunik gabe, **Joseba Sarrionaindiak** preso zelarik idatzi zuen bezala. Ni, baina, ez nintzen giltzapeturik. Ni deserrian nintzen. Edo, bederen, hala sentitzen nintzen. Banintzenetz argitzeko, Harluxet Fundazioaren Euskal Hiztegi Entziklopedikora jo nuen, bigarren liburuxkara. *Deserri: erbeste.* To. Argitalpen bereko hirugarren liburuxka hartu behar izan nuen nire dudentzako argibiderik topatzeko. *Erbeste: norberarena ez den herri, lurralde edo nazioa; bereziki, norbait arrazoi politikoak medio norberaren nazio edo estatua utzita kokatzen deneko lekua.*

**Deserrian.** Seme-alabek –Larraitx alaba eta ikastolako irakasle talibanen batek burmuina garbituta Juan Kruz deitzeari uko egin dion Jon semea– egongelako telebista handian –28 hazbete– Play Stationean –irakurri pleistexion– jolastu nahi zuten, ez dakit zer hegazkin jokoan. Igande goiza zen, ez nuen haiekin borrokan aritzeko indarrik, eta amore eman nuen. Hartara, sukaldean nintzen, begirada mikrouhin labearen ondoko telebista txikian –14 hazbete– iltzatuta, ipurdia formikazko aulkian gogortuta. Berrogeita hiru urte betetzear naizelarik, egongelako besaulkia dut aberri bakar, eta nire arazo politikoak gutxitan doaz seme-alaben aldarrikapenez haratago –**Jose Luis Diezen** eskutik, erregionalisten artean ere modan dira familia barruko arazo politikoak–. Beraz, deserrian nintzen, deserrian nintzenez.



Tomas Urzainki, abokatu eta historialaria.

**Errepresioa ez da bidea.** Deserrian nintzen, erbestean, eta telebistak erbesteratuago sentiarazten ninduen. Pantaila txikian ETBk Donostiako estropadez eskaini irudi lainotuak, lausotuak ageri ziren. Iruindar baten zat, jakina, estropadetako irudiak arrotzak dira, guztiz, Euskal Autonomia Erkidegoko telebistako esatari **Mikel Olazabalek** behin eta berriz Euskal Herri osoa Easo Ederreko banderari so zegoela errepikatu bazuen



Igandeko estropadetetan Castro garaipena ospatzen.

ere. Lasai, ez naiz kostaldezentrismoaz ariko. Ez naiz **Tomas Urzainkiren** 'La Navarra maritima'-ren biktima berria. Erosi, erosi nuen, baina beste hainbatentzat bezala, niretzat ere behin betiko mesanotxeko liburu bilakatu da, amaitezina baita, hasi ezina, kasik. Salaketa egingen dut, baina bestelakoa. Salatuko dut Olazabal modu ezin zakarragoan aritu zitzaizola zirika **Balentin Elgezabali** kaitik, estropadako zenbait epaileren albotik lanean ari zen lankideari. Olazabal nagusia da, eta Elgezabal mendekoa. «Sartu mikroa!», «Ez geratu hor!», «Joan hara!»... **Jose Maria Garcia**ren jarraitzaile sutsuak behin eta berriz utzi zion argi munduko pazientzia guztiaren jabe dela erakutsi zuten mendekoari, kaboak soldaduari

bezala, poliziak manifestariari bezala, laneko arduradunak langile soilari bezala, irakasleak ikasleari bezala, autobus gidariak bidaiari gaztetxoari bezala...

**What's the matter?** Segituko nuke, baina idazten dudana bitartean jakin dut Estatu Batuetan gertatu dena, seme-alaben bideo-jolasa errealitate bilakatu dela. Entzutuen ari naizen irrati esatariak dioenez, akaso munduko gerraren hasiera izan daiteke, agian Munduaren amaiera. Bost axola Olazabalen abenturak eta kalenturak. Bost axola zutabe hau. Bost axola zu, irakurle. Bost axola guztia, kuba librean izan ezik. Montecarlora noa, beharbada, azkena hartzera. Izan ongi. Adiorik ez.



## panpilonia zirkus

# Alaren harategia

«Emaztearekin arabieraz hitz egiten dut. Lantokian, sarritan, gazteleraz aritzen naiz. Seme-alabek, berriz, euskaraz ikasten dute eskolan».

Youssef Bouajaja, Marokoko hegoaldean, Oujda herrian jaio zen. Egun, Sakanaan, Iturmendin bizi da familiarekin.

Gizon gaztea, arabiarra eta musulmana da. Hori dela eta, ez du txerrikirik jaten. Hala ere, duela zenbait hilabete *Al Baraka* harategi arabiarra zabaldu zuen Iruñeko Donibane auzoan. «Inor ez da harritzen, urdaiazpikorik edo txistorrarik saltzen ez dudalako. Oso goxoa dela diote, baina gure erlijioak ez hartzeko agintzen digu».

Bestetik, abereak odolez husteko, gure hiriko hiltegian, lepoan bi zulo egiten diete. Gure protagonistak, ordea, beste era

batera jokatzen du. «Nik, zuzenean, lepoa moztzen diet. Bestela, beti, odol hondarrak gelditzen dira barruan».

Bitxikeria horiek alde batera utzita, bertan, beste edonon bezala, klase orotariko haragia saltzen du Iturmendiko bizilagunak.

Haren iritziz, beste hainbat tokitan baino merkeago saltzen du kalitate bereko haragia.

Nolanahi ere, orain arte, ez da auzokide askorik joan harategira. Dendarik, tabernarik, ataririk eta bizitzaren arrastorik ez duen Oskiako Ama Birjinaren kalean dago kokaturik. Lagun arabiarrek dioenez, «batez ere, Maroko, Aljeria, Tunez eta Egiptotik iritsitako etorkinek egiten dituzte hemen erosketak».



Albaraka harategi islamikoa, Donibane auzoan.

Haragiaz gain, Afrikatik ekarritako berrak, tea, olibak, fruitu lehorrak, kus-kusa eta espezia bereziak aurkitzeko aukera dago bertako apalategi kaotikoetan. «Bi hilabetetik behin joaten naiz nire herrialdera. Batetik, senitartekoak bisitatzen ditut eta, bide batez, harategian agorturik dauden produktuak bildu».


Bat-batean ohartu naiz. Apalategien gainean..., kristalezko koadroetan ba-

## Pello Argiñarena

bèsturik... paretatik zintzilik... Koran liburu sakratuaren hamar ale. Alaren eleen aleak. Hamar manamenduak balira bezala. Non eta harategian.

«Nahiko lanpeturik nago beti eta, gainera, Iruñetik kanpo bizi naiz. Haia ere, egunero joaten naiz Arrosadiko meskitara otoiitz egitera. Asko laguntzen dit horrek».


Arrosadian, hain zuzen ere, beste harategi bat zabaldu dute berriki. Beraz, Youssef Bouajajak eskaintzen duen aukera ez da bakarria Iruñean. Bestela ere, Bigarren Zabalguneako *Alsafir* jatetxe arabiarra jo daiteke. Betiere, etxean prestatuz gero, ardo zuririk ez erabili haragiaren zaporea gozatzeko. Alkohola ere, debekupean dauka Alak.

**Jose Antonio Cruz**  BIDASOAKO NAZIOARTEKO FILM LABURREN JAIALDIKO ZUZENDARIA

# «Jendea jaialdira erakarri eta zaletasuna piztu nahi dugu»

Bidasoako Nazioarteko Film Laburren Jaialdia hasi zen astelehenean, Elizondo, Bera, Doneztebe eta Hendaian, Bertizko Turismo Partzuergoaren eskutik. Aurten 20 film izanen dira lehian Urrezko Iratzea eskuratzeko asmoz. Lehiaketarekin batera, sail berriak izanen dira aurten: publikoak bere saria banatuko du, eta zonaldeko egileek euren bideo lanak erakusteko aukera izanen dute.

MIKEL SAIZ



## soslaia

Madridarra da Jose Antonio Cruz, baina 18 urte daramatza Iruñean. Baztan-Bidasoa inguruarekin harreman estua du, batez ere Baztanekin. Diseinatzaile grafikoa da, eta askotan jorratu du han bere lana.

Bidasoako Jaialdiarekin ere ia hasieratik du harremana Cruzek. Bigarren eta hirugarren ekitaldietan epaimahaiko kide izan zen, eta, aurten, berriz, zuzendari. "Bertizko Partzuergoak bultzada berria eman nahi zion jaialdiari, eta niri egokitu zait lan hori".

Bidasoako Nazioarteko Film Laburren Jaialdia astelehenean hasi zen eta 22an amaituko da, itxiera ekitaldiarekin. 25ean, berriz, irabazleen lanak bistaratuko dituzte Iruñean. Jaialdiak zinemara hurbiltzeko aukera eskaintzen duela azpimarratu du Cruzek.

### ■ Zaletasuna bai, baina zinema aretorik ez dago zonaldean.

Hala da. 70eko hamarkadan sei baziren eta egun bakar bat ere ez. Zerbitzu guztiak hirietan pilatu dira, eta Baztan-Bidasoako nekazari gunea deus gabe gelditu da. Ildo horretan ere urratsak egin nahi ditu Bidasoako Jaialdiak; hau da, etorkizunean azpiegitura sor dadin beharra sortu behar da, eta gu horretan ari gara. Epe luzerako lana da, baina urratsak egiten ari gara. Gure jaialdiari esker, adibidez, Berako azpiegitura hobetu da. Gure asmoa da zinema urte osoan ikusteko aukera bultzatzea.

### ■ Beharra sortu diozu; film laburrak horretarako bide egokia direla uste duzu?

Bai, film laburren mundua era askotakoa delako. Hainbat egilerentzat euren burua aurkezteko modua da, beste batzuentzat film luze bat egin aurreko urratsa; badira laburrak egiten dituzten film luzeetako zuzendariak ere. Jende gazte asko dago, gainera, film laburren munduan sartua, eta horrek, eta era askotako mundua izateak, erakarga-

ri bilakatzen du laburren esparrua.

### ■ Guztientzat ez da erakargarria; aurkezpenean Nafarroako Gobernuo Kultura Sailaren laguntzarik ez duzuela jaso esan zenuten, kexu.

Bai. Turismo Sailaren laguntza dugu, Bertizko Patzuergoarekin duen hitzarmenaren bidez, baina Kultura Sailak ez du parte hartu. Akitania-Nafarroa Fondora jo genuen laguntza eske, baina, zoritxarrez, gure ekimena ez zuten interesgarritzat jo. Kultura Sailak egin du aurkako txostena. Konplizitate eta sentsibilitate falta dago. Gu jaialdi independentea gara, Nafarroako iparraldean gaude, eta ez badira konturatzen ekimen horrek duen interesaz, ezin dugu deus egin.

### ■ Edonola ere, jaialdi martxan da. 22an duzue itxiera ekitaldia; zer prestatu duzue egun horretarako?

Juanma Bajo Ulloa zinemagileak parte hartuko duela erran behar dugu. Gero, sariak banatzeko ikuskizun bat prestatu dugu, ekitaldi dibertigarria egin nahi genuelako, jai bat, denek ongi igaro dezaten eguna.

→ Edurne Elizondo

### ■ Aurtengo berrikuntzen artean, publikoak aurrenekoz emanen duen saria dago; jaialdira jende gehiago erakartzeko bidea da?

Bai, hori da sari horren helburu nagusia, jendea jaialdira erakarri eta, aldi berean, zinemarako zaletasuna piztea. Aurten ez du balio ekonomikorik izanen sari horrek, baina datorren urtean agian izanen du. Ikusiko dugu zer gertatzen den. Edozein modutan, jendea inplikatzeke modu bat da sari hau.

### ■ Sari horrekin batera, zonaldeko egileei ere zabaldu diezue leihoa aurten, aurrenekoz, ezta?

Bai, Beran, hilaren 19an, zonaldeko egileen bideo lanak erakutsiko ditugu. Badakigu bada-

goela interesa duen jendea, lanean ari den jendea, eta haien bideo lan horiek erakutsi nahi ditugu. Espero dugu aurten ongi ateratzea eta datorren urtean egoitza guztietan errepikatzea esperientzia hori. Baztan-Bidasoako zonaldean film asko egin dira; kanpotik etorri da jendea honat filmatzera. Horrek nolabait indartu du zonaldea, eta sortu du zinemarako zaletasuna. Hazia izan da egile askorentzat. Oso leku berezia da, jende askoren topagune delako, eta, ondorioz, gauza askotarako kezka berezia dago, bai eta zinemarako ere. Beraz, jaialdiaren bidez bi alderdi jorratu nahi ditugu: batetik, zinemara joateko zaletasuna piztu, eta, bestetik, egileei ate bat zabaldu nahi diegu.

«Akitania-Nafarroa Fondora jo genuen laguntza eske, baina, zoritxarrez, gure ekimena ez zuten interesgarritzat jo; Nafarroako Gobernuo Kultura Sailak egin du aurkako

txostena»

JOSE ANTONIO CRUZ DA BIDASOAKO JAIALDIKO ZUZENDARIA. Ekimen horren helburu nagusia, inguru-hori ezagutzera emateaz gain, zinemarako zaletasuna piztu eta egileei ate bat zabaltzea dela azpimarratu du.

### ■ Jaialdia behin betiko sendotzeko asmoarekin antolatu duzue aurtengo laugarren ekitaldia?

Behin betiko ez dakit, baina egia da aurten jaialdia sendotzeko asmoarekin prestatu dugula, laugarren ekitaldia delako; nahiko helduak gara jada. Gure asmoa da, dena den, urtetik urtera handitzea, etengabe berritzea. Kontuan hartu behar dugu, hala ere, jaialdi independentea izan arren, diru laguntzei esker bizi garea, eta ekitaldi gehiago egiteko diru gehiago behar dugu. Aurtengo egitura aurreko urteotako bera da, funtsean, eta lehiketa da, noski, ekitaldi nagusia. 20 film labur izanen dira lehian. Badira hainbat herritakoak. Baditugu hainbat sail berri ere.



## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Amerikarren irudia

Astearte arratsaldekoa pelikula bat izan balitz, sinesgarritasun falta leporatuko geniokeen zuzendariari, bat-batean Estatu Batuetako bihotz ekonomiko-politiko eta militarri hain bortizki erasotzea ezinezkoa dela argudiatuz. Baina ez, begi aurrean genuena ez zen pelikula, errealitatea baizik. Eta hor ginen gu, telebistaren aurrean, irudi ikusgarriek harrapatu, begi aurreko ikuskizuna azken hamarkadetakoa gertaera garrantzitsuena zela jakitun. Psikologo bati irakurri nion hondartzatik itsasontzi bat hondoratzen dela ikusteak nolabaiteko plazerra sortzen duela gizakiongan. Penaren eta plazerraren arteko sentsazioa omen da. Pena barruan doazen heriotzengatik eta plazerra horrelako ikuskizun bat zirraragarria izaten delako. Lehenbizikoa ozenki aitortu ohi dugu. Bigarrena ezkutatu egiten dugu.

Astearteko erasoak gertatu zelarik, etxeko egongela zen hondartza goxoa eta Estatu Batuetako sinbolo ekonomiko, politikoa eta militarriak hondoratzen ari zirenak. Zuek gehienok bezala, nik ere telebistari esker mundua alda zezakeen gertaera zuzenean ikusten ari nintzela pentsatu nuen. Baina berehala ohartu nintzen amerikarren sateliteek bidaltzen zituzten irudietan zerbait falta zela, eta zerbait hori Dorre Bikien erorketa bezain ikusgarria ez izan arren, garrantzitsuagoa zela: mina, heriotza, odola. Erraldoi zauritua sutan zegoen, egoera inoizko larriena zen, baina agintari batzuk irudiak munduratzeko moduaz lanean ari ziren. Ez ospitalerik, ez hildakorik, ez minik. Gauza jakina da erraldoiak erasoari erantzun egiten diola, eta erantzuna ez dela txantxetakoia izan. Iragarritako erasoak utziko dituen irudiak, ordea, ez dira asteartekoak bezain ikusgarriak izanen. Eta heriotza eta mina ere ezkutatu egiten dituzte, azken urteotan bezala.

McLuhane herrixkan bizi gara, bai, baina amerikarrek (zinean adituenak) badakite irudi batzuk mingarriak izan daitezkeela ikuslearentzat. Tamalez, amerikarrek astearteko atentatu egileak bezain krudelak izanen dira hurrengo erasoak harrapatuko dituen errugabe guztiakin, baina lasai egon telebistan ez baitugu haur hilik ikusiko.

## gure aukerak

### MUSIKA

- Uharteko: Pottor's, Akerra, Anorexia, Pentakrator, Detested eta Sakro taldeek kontzertua eskainiko dute, bihar, 21:00etatik aurrera, Calvarioko zelaian (Mina lantegiaren aitzinean). Musika taldeekin batera, Uharteko txalapartariak eta Atarrabiako Gas malabare taldea ariko dira.
- Uharteko: Flitter eta Dank taldeek ostegunean joko dute, 22:30ean.

### BERTSOLARIAK

- Garralda: Maialen Lujanbio eta Jokin Sorozabal gaur 21:30ean Etxebaurrengoan egiten den bertso afarian izanen dira.
- Biriatu: Intxaurreta elkartearen, Hendaia-Oiartzun bertso desafioa egiten dute bihar. Hendaia: Amets Arzallus, Miren Arretxe eta Xumai Murua. Oiartzun: Arkaitz Goikoetxea, Juanito Mitxelena eta Jon Martin.
- Lesaka: Bittiria auzoan, eguerdian, Jona Maia eta Mañukorta bertsolariak izanen dira.

### ANTZERKIA

- Uharteko: Sebastopoleko titirite-roek Pailazoen kalejira ikuskizuna eskainiko dute, asteartean, 11:30ean, San Juan plazan.
- Berriozar: Kukubiltxo taldeak Txirrikiz antzezlanaren taularatu du, asteazkenean, 18:00etan, Mendialde ikastetxean.

### EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA

- Iruñerria: Iruñerriko IKAKo eskultegietan matrikulatzeko epea zabalik da dagoeneko: Arturo Campion, Barañain, Atarrabia, Mendillorri eta Ermitagaña.
- Iruñea: Miluze eskultegian (Victoriano Juaristi, z/g) urrats guzietako matrikula epea zabalik da, hilaren 21a arte, 09:00eta-

tik 12:30era eta 17:30etik 19:30era. Informazio gehiago, 948-177670 telefonoan.

### IKASTAROAK

- Atarrabia: Aisialdi sortzailerako ikastaroetan eta haur ikastaroetan izena emateko epea hilaren 28an akituko da (Kultur Etxean).
- Iruñea: Euskarazko Sormen Tailerretan matrikulatzeko epea hilaren 24tik 28ra bitartekoa da. Argazkigintza, pintura, tapizigintza, txalaparta, zeramika, aerobic, euskal dantza, dantza

latinoak, irratigintza, sukaldaritza eta Internet. Izena arratsaldez eman behar da, Gazteriaren Etxean.

### ERAKUSKETAK

- Elizondo: Asier Larretxea olerkari gaztearen Zabortegiko poemak erakusketa Arizkuneneako ganbaran izanen da, hilaren 22a arte.
- Iruñea: Maria Dolores Gil Bearen akuarelen erakusketa Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42) bisita daiteke, hilaren 29a arte.

### BESTELAKOAK

- Zizur Nagusia: Igandean esku-langintza feria eta farfail egileen topaketa egiten dute herrian.
- Atarrabia: Altamirako kobazuloen erreplika bisitatzeko txangoa antolatu du Udalak hilaren 29rako. Izena heldu den ostirala baino lehen eman behar da, Kultur Etxean.
- Lodosa-Sartaguda: Urriaren 21eko Nafarroa Oinez bestan laguntzeko 2.500 lagun behar dituzte. Prest baldin bazaude, deitu 669-552096 (Joxean) telefonora.

JOXE LACALLE



## Jendetza

Azken eroldaren arabera (eta Irrintzi dorrera abioirik erortzen ez den bitartean), Nafarroa Garaian 543.757 lagun bizi gara, bisitan etortzen zaizkigunak gorabehera. Zenbakiekin segituz, iragan larunbatean Iruñeko Batasunaren Pribilejioaren 578. urteurrena ospatu zuten; hau da, duela urte mordo Carlos III.a erregeak (etorbidearena, bai) hiriburuari sortze agirira eman ziola (nahiz eta Iruñeak bi milurteko baino gehiago dituen). Baina larunbateko ospakizunera ez omen zen jende askorik joan, edo ez behintzat antolatzaileek espero zuten jendetza. Are gehiago, 27 zinegotzietatik zazpi besterik ez ziren ekitaldietara joan. Erran dugu Nafarroan milioi erdi pasatxo garela. Bada, eskerrak horiek guziak larunbateko ekitaldietara joan ez ziren. Bestenaz, katedraleko plazako hesietara igotzeaz gain, kanpandorrera ere igoko ziren ikusleak.